

A photograph of a person sitting on a cobblestone street in front of a building with a window. The person is wearing a dark jacket and colorful pants, and is barefoot. The scene is lit with soft, natural light, creating a contemplative atmosphere.

# HOLODOMOR

Natalia  
Mykhaylevska

GIZA LIBURUTEGIAK  
2019

# GIZA LIBURUTEGIAK 2019

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

**"Giza liburutegiak"** Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

**Natalia Mykhaylevska eskertu nahi dugu Ucraina-Euskadi elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.**

*Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner*

# Holodomor. Gosete izugarria.

**Ukrainako hego-mendebaldean jaio zen Natalia Mykhaylevska, Errumaniatik eta Moldaviatik gertu dagoen hiri batean: Txernivtsi. Herrialdeko egoera ekonomiko eskasaren ondorioz, jende askok Ukrainatik alde egin zuen 90eko hamarkadan, eta gauza bera egin zuten Nataliak eta bere senarrak 2000. urtean. Nataliak 22 urte zituen eta ikasketak bukatu berritan zegoen. Lehenik, Portugalen eta Italian ibili ziren, eta, ondoren, Donostian ezarri ziren, orain dela 14 urte. Bertan jaio zen bien semea. Nataliarentzat, toki ezin hobea da Donostia, Karpato mediak gogorarazten dizkio-eta.**

Holodomor izeneko historia ekarri digu: horrelaxe deitzen da 1932 eta 1933 urteen bitartean milioika ukrainar hil zituen gosetea.

Ukrainan gertatu zen. Ukrainako herriak betidanik egin du borroka, hainbat mendetan zapaldu eta jazarri baitute bertako jendea. Identitate sendoa daukate eta beti egon dira jomugan. Adibidez, Pedro Handiak 300 bider debekatu zuen ukrainarren hizkuntza idatzia eta ahozkoa; Katalina Handiak harago jo zuen, eta izen ukrainarrak ere debekatu zituen.

Nataliak ekarri digun historia 1917. urtean hasi zen, Errusiako Iraultzarekin batera. Ukrainak, identitate abertzale indartsua duenez, aurre egin zion iraultzari, hainbat gudaren bidez; 1919an, ordea, hiriburua erori zen, Kiev.

1932ko abuztura joko dugu: garai horretan, Stalin zen erregimen boltxebikearen burua. Stalinek ondo baino hobeto zekien Ukrainako herria borrokalariz josita zegoela

eta tarteka matxinatzen zirela, ondorioz, neurriak hartu zituen. Besteak beste, 1932ko abuztuan, Ukrainako elikagaiak kendu zituen, batez ere garia, ondorioz, bertako herritarrak gosez hil ziren. Herritarren-kopurua jaisten hasi zen, nabarmen, eta erresistentzia agertzen zuten eremuetan, berriz, KGB polizia etxez etxe joan zen elikagaiak arpilatzen. Matxinoak, berriz, Siberiara bidali zituzten, eta handik ez zen inor itzuli.

Azaroa iritsi orduko, jendea zerraldo erortzen zen kalean. Hainbeste jende hil zen, ezen KGBkoek kaleko gorpuak bildu eta beren autoetan eramaten baitzituzten. Gosetearen ostean bizirik atera zirenek kontatzen dutenez, hilurren zeudenak ere eramaten zituzten, eta bizirik lurperatzen; hala, zorua mugitu egiten omen zen.

Ukrainar herriaren aurkako estrategia honen ondorioz, 55 milioi ukrainar hil ziren 6 urtean.

Nataliaren arabera, garrantzitsua da Historia gogoratzea, iraganeko akatsak berriro ez egiteko eta etorkizun bat edukitzeko; bestela, Nataliak dioenez, Ukrainan gertatzen ari dena gertatuko baita: "Gaur egun, 5 urte daramagu gerran; beste genozidio bat da".

GIZA LIBURUTEGIAK  
BIBLIOTECAS HUMANAS  
2019



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Kultur Aniztasuna  
Diversidad Cultural